



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



2016ko abuztuaren 11 | XXXIV. urtea | 668. zenbakia

**Herrietako  
Bestak/Festak**

**ARANTZA → 8**  
Amabirjinen ondotik besta  
segitzeko Arantza Rock

**GOIZUETA → 14**  
Plazako betizurik gabe ere  
festa bikainak datoz

**AMAIUR → 20**  
41. edizioa beteko du  
artzain zakur lehiaketak

**EZKURRA → 21**  
Nafarroako 3. mailako  
aizkora txapelketa jokoan

## IKASTURTEA HASI AURRETIK MOTXILA BETETZEKO GARAIA

ARGAZKIA: AMAIA ZINKUNEGI



Bertsolaritzaren transmisioa  
belaunaldiz belaunaldi

ERREPORTAJEA → 3-5

# ETA JAIETAN... ZER?



## JAIETAN ERRESPETUZ BIZI GARA

KULTURA → BERTSOLARITZA

# Enbor bereko ezpalak bertsoan

Bertsolaritzaren transmisioa belaunaldi batetik bertzera

G. PIKABEA

Euxebio eta Joxe Mari Fagoaga anaiak (Ituren), Amaia eta Aitor Telletxea anai-arrebak (Arantza), Estitxu eta Eneko Fernandez anai-arrebak (Lesaka), Joanes eta Xabat Illarregi anaiak (Leitza)... Gehiago ere izanen dira, ez baitira gutti familia beretik atera diren bertsolariak. Baina senideen tartean ez ezik, bertsolariak be-

launaldi batetik bertzerako saltoa ere egin du eta horren adibideak ere badira eskualdean: Juan Mari eta Maddalen Lopez aita-alabak (Lesaka), **Arozenatarrak** (Lesaka), **Madariagatarrak** (Arantza), **Elizagoien eta Gorosterrazu** bertsolariak (Ornoz-Mugairi, Ituren)... Horieta-ko batzuengana jo du TTIPI-TTAPAK bertsolaritzaz eta honen transmisioaz solasteko.



## MADARIAGATARRAK (ARANTZA)

«Bertsoa niretzat lagun berri bat da. Aunitzetan bakarrik aritzen naiz bertsoan»

Barren-barrenetik bizi du bertsolaritza Xalbador Madariaga arantzarrak, bistakoa da hori bere aurpegiaren, baita ahoa zabal-tzen duenean ere. Aurten 86 urte eginen baditu ere, ez dio memoriari hutsik egiten eta bertso aunitz dakizki buruz, bereak eta bertzeenak. San Juan egunez, San Juan Xarko mezan, andeari kantatu zion hau bezala: *Pentsa zazute sanjuanez zenbat gauza on ematen duan, andregaiare San Juan egunez nik hementxen egin nuan. Lehendabiziko izautu nuan horko zubi punt horren onduan huraxe benpen ona eman zidan bat onik eman bazuan.*

Akaso familiaratik etorriko zaio bertsotarako zaletasuna, bere atautxi Bautista bertsolaria baitzen. Baita izen bereko anaia zaharragoa ere. Kontatu digunez, «anaiarekin ere bertsoan ibilia naiz. Etxean ere ibiltzen ginen biak, baita nire burutik ere, iratze metari ere bai», dio irriz. Etxean ez ezik, herrian ere aritzen omen ziren: «igande arratsetan, ostatuetan, jendea erne egoten zen bertsoak aditzen, oraingo aldean afizio haundia zegoen orduan». Berak dio «ari eta ari» ikasi duela bertsoan: «ostatuan ibiltzen ginen, baita Santa Agedan, urtezahar arratsetan eta errege bezperan ere. Tobera jotzen ere aritzen ginen.

Norbait ezkontzean, pregoi egunean, neskaren etxera joaten ginen tobera jotzera eta hala-koetan bertsotarako norbait behar izaten zen».

Herrian eta etxean noiznahi kantatzen bazuen ere, plazetarako saltoa 30 urterekin egin zuen: «lehenbiziko aldiz, Zugarramurdiko bestetan kantatu nuen. Anaia bertsotara joan zen eta laguna ez zitzaion agertu. Norbait behar zutela eta, Zugarramurdiko batzuk eske etorri zitzaizkidan. Hantxe kantatu nuen lehenbiziko aldiz plazan». Horren ondotik gehiago etorri ziren: «Vianako Printzea Era-

kundeak saio saila paratzen zizkigun eta bestetan herriz-herrir ibiltzen ginen. Ongi pasatzen genuen».

## BERTSOA HITZETIK HORTZERA


Txapelketetan kasualitatez hasi zen: «lehen, borts herrietako kintoek herriz-herrir kinto bestak egiten genituen. Arantzan kinto besta genuen batean, *Barraka*, Luis Olaetxea *Makuko*, Josetxo lantzi eta ni bertsoan abaila ari ginen. Dionixio Mujika etorri zitzaigun eta txapelketan parte hartzeko erran zigun. Berak apuntatu gintuen». Hura izan zen hasiera: «geroztik urte sai-

la egin genituen txapelketetan».

Lehendik orainera bertsoa «hagitz aunitz» aldatu dela us-te du Xalbadorrek: «oraingo bertso aunitzetan ez dakigu zer erraten duten ere, eskolarik ez dugulako ez ditugu ententitzen. Orain saioetan ari diren bertsolari batzuk ere, Peña eta Egaña adibidez, aldatu egin dira». Horrekin batera, zera gaineratu digu: «orain mikrofonoa paratu eta jendea isilik egoten da bertsoaren esperoan, eta bertsoa aitzinetik egiten dute. Bertsoa segidan bota behar da, hori da hitzetik hortzera bertsoa botatzea».

Bertsoan egin duen ibilbide oparoaren ondotik, bertsoa beretzat zer den ere galdetu digu Xalbadorri eta honela erantzun digu: «bertsoa niretzat lagun berri bat da. Aunitzetan bakarrik aritzen naiz bertsoan. Andreak nire burutik solasean zer ari naizen galdetu izan dit, eta ni bertsoan, berez etortzen zaidana edo bertso zaharrak kantari». Hori bai, garbi du nahiago duela motzean ari: «zortziko ttikia nahiko ongi akautzeko, halerre, nahiko lan lau puntuak ongi paratzeko». Bautista anaia, aldiz, bertso luzeetan aritzen omen zen: «baina nik ez nuen balio».

Berak atautxirengandik hartu zuen bezala, Ekai eta Kattin bilobek ere atautxiren zaletasunari heldu diote. 10 eta 8 urte beteko dituzte abudo, eta bertsoan ikasten hasi dira. Gustura dabilzala aitortu digute, eta segitu nahi dutela. Eta nola ez, bilobak bertsoan ikusita, atautxi kontent: «segituko ahal dute», dio. Denborak erranen digu.



Xalbador Madariaga Ekai eta Kattin bere bilobekin.

**AROZENATARRAK  
(LESAKA)**
**Hiru belaunaldi eta  
gehiago eta bertsoa  
bizi-bizirik**

Plazarako saltoa berandu egin bazuen ere, aurkezpen gutti behar du Manolo Arozenak, aski ezaguna baita, bai bertsolari gisa, eta bai bertso munduan egindako lanagatik ere, hala nola, joan den urrian 25 urte bete zituen Bortziritako Bertso Eskolaren sortzaileetako bat baita, Bittor Elizagoienekin batera.

Bertsotan plazan 38 urterekin hasi zen, baina berak dioenez, «gutxi asko bertsolari zaren munduan beti ibili naiz». Andres Mitxelena bertsolaria atona zuen; ez zuen ezagutu eta azaldu digunez, amonari zor dio bertsozaleatasuna: «nire amaren ama bertso zaharrak kantatzen aritzen zen beti, gure attack ere bertsoan egiten zuen, osabek ere bai, baina uste dut nire bertso kutsu gehiena amonarengandik sortu zela». Estitxu alaba, berriz, «biturritatik edanez» hasi zen bertsoan: «familia eta ikastola. Etxean bertso zaharrak kantatzeko tradizio handia izan dugu, batez ere attaren familian. Eta ikastolak bertsoarako nuen zaletasuna elikatze baliu izan dit».

Atta-alabek batera kantatu izan dute Nafarroako Txapelketan eta txapel bat baino gehiago irabazitakoak dira. Manolok 1988an parte hartu zuen lehenbizikoz. Bi urtez bigarren gelditu zen, eta ondoko lau urteetan txapeldun. Estitxu hamasei bat aldiz aritu da Nafarroakoan, 1992an hasita: «beti finalera ailegatu naiz, eta gehienetan bigarren gelditu naiz, eta txapeldun bialdiz». Txapelketa Nagusian lau aldiz ibili den arren, «behin edo horrela kantatu dut gustura gelditze moduan», adierazi digu.

Bertso saioak eskaintzen lgantzin hasi zen Manolo, 88ko txapelketaren ondotik: «Xabier Zeberioarekin zaharren bazkarian». Geroztik saila egina da: «zortzi-hamar urtez bertso plaza pila egin nituen, urtean 60 plaza». Gaur egun, ordea, «hiruzpalau saio sinboliko» egiten omen ditu. Lehenagotik egin zuen Estitxuk plazetarako saltoa: «16 urterekin Beran kantatu nuen, Korrikako otordu batean». Baina gogoan



Estitxu Arozena, Lexuri eta Orti ilobak, eta Manolo aita bere amonaren argazkia eskuan duela.

duenez, «12-13 urterekin Iruñean lau errimekin kantatu nuen».

**BERTSOAREN BILAKAERA**

Lehendik orainera bertsolari-ritza aldatu dela uste dute biek. Manolok dioenez, «beti aldatzen doa. Orain dela 40 urte bertsolariak baserriak ziren, jakinduriaz murritzak, nahiz eta bertsolari handiak izan. Uztapidek bere sinadura botatzen juxtu jakinen zuten, baina bertsolari handia izan zen. Gaur, berriz, bertsoan dabilen edonor unibertstatetik pasatutakoa da. Denean aldatu da bertsolari-ritza, nahiz eta oinarrian berezkoa hor duen. Biziraun behar badu, aldatzen joanen da». Estitxu ere iritzi berekoa da: «lehen bertsolariak ez du zerikusirik oraingoarekin, ez gaia paratzerako moduan, ez kantatzeko moduan ere... eta nik utzi nuenetik ere (2011tik) aunitz aldatu da». Aldatu ez dena, Estitxuren irudiko, elitea da: «egonkorragoa da».

Zaletasunaren inguruan ere bat datoz: «90. hamarkadan boom bat zen». Estitxurentzat «boom» jaitsi eta bertso giroa normalizatu da, baina ez da kezagarria. Indarguneak badira. Bertso eskolak gune indartsuak dira, eta ez hainbete saioetara joaten den jende kopurua. Orain arte aguantatu du eta inoiz

baino bertsolari gehiago dira batean kantatzen dutenak». Manolok «zaletasuna badagoela» dio, «nahiz eta gaurko egunean, zure txokoan geldiarazten zaituzten gauza asko egonda, jende gutxiago mugitu».

Txapelketak beharrezkoak ikusten dituzte, «jendea mugitzen dute. Baina bertsolari batzuei eman eta besteei kendu egiten diete. Txapelketan ongi ibiltzen denak normalean saio gehiago egiten dituzte, eta saioak egiteak bertsolari bertsolari egiten du», aipatu du Manolok. Alabak «txapelketak hausnarketarako mesede egiten duela» dio, «orain arte bertsolariak irauteko beharrezkoak izan dira». Baina bereztat, «bertsoa ez da 0etik 10era puntuatzeko zerbait, adierazpen


bat da, gustatzen zaizu ala ez». Txapelketak behar direla bai, baina Manolok aitortu digu nahia- go duela bazkari edo afari batean bertsoan ari: «bertsolari askoz ere komodoago sentitzen da». Alabak ere hala dio: «inor ezagutzen ez duzun herri batean bertso afari on bat egitea tentsazio zoragarria da».

**BERTSOA BAINO GEHIAGO**

Bertsolariak «gauza asko» eman dio Manolori: «nire idoloekin kantatzeko aukera izan dut

eta horrek ase egiten nau. Lagun pila egin ditut, bertso eskolak sortu, gazte askorekin egon naiz harremenetan... Askok eman dit». Estitxuri, berriz, «bizimodu bat eta harreman sare hagitik aberatsa» bat eman dizkio bertsoak: «beharbada, bertso munduak probatzeko askatasuna kendu dit, beti Euskal Herriari lotua egon naizelako. Baina balorazioa, dudarik gabe, hagitik positiboa da».

Familiatik hartu zuen Manolok bertsolari-ritza, eta berak ere bere ondorengoei transmititu die. Attaren gisa, aurkezpen guttirik aski du Estitxuk. Eta Manoloren biloba eta Estitxuren ilobek ere hartua dute bidea. Hori ikusita «poza besterik ez» duela sentitzen aitortu digu Manolok: «tarteka nire pentsamendutan jartzen naizenean, nire irrifar- txoak egiten ditut». Bilobena «anekdota bat bezala hartzen duela» aitortu digu, tarteka zirikatzeko omen dituztena botata, baina «ez diet aholku gehiegirik ematen. Hor daude, gustatzen zaie eta ez dakigu gerora zein bide hartuko duten, baina behintzat zer den ikasiko dute». Estitxurentzat ere «polita» da ilobak bertsoan ikustea. Gustatuko omen litzaioke segitzea, «uzten badute pena hartuko dut, baina ulertuko dut. Nik ere aunitzetan pentsatu izan dut zenbateraino izan den nire erabakia ala zenbateraino eraman nauen inguruak. Lagundu bai, baina ez nuke inor presionatu nahi». Orain behintzat gustura dabilta Orti eta Lexuri bertsoan, eta gero geroakoak.



**ELIZAGOIEN FAMILIA  
(ORONÓZ-MUGAIRI ETA ITUREN)**

**Zinta zaharretako  
doinuen indarra**

Gazterik hasi zen Bittor Elizagoien bertsoan, eta ttikitatik hartu dute bertsoaren bidea bere ondorengoek ere. Amaia alaba bertsolaria da, eta Iker eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien ilobak ere bai.

Bittorrek bere baitatik eman zuen bertsoarako urratsa: «arrebazaharrenak eta koinatuak bertsoarako afizioa zuten eta magnetofono batekin bertso saioak grabatzen zituzten. Bazekiten ttikitatik afizioa banuela eta zintak ekartzen zizkidaten. Anaia zaharrenaren kotxean zintak paratu eta orduak eta orduak pasatzen nituen bertsoak aditzen». Horrela hasi zen eta halaxe parte hartu zuen, 17 urterekin, lehenbizikoz txapelketan: I. Iantzi Sarian, 1979an Lesakan. Lehenbiziko plaza eta txapelketa izan ziren beretzat. «Nahiko traketsaritu zela» aitortu digu, «nire baitatik ibilita joan nintzen eta sufritu nuen». 24 urterekin, ordea, Gipuzkoako Bertso Eskolan hasi zen, eta Iruñeko Zaldiko Maldikongero: «bertso eskolan perfektzionatzen hasi nintzen eta hala gustura ibili nintzen».

Txapelketako lehen esperientzia «arraroa» egin bazitzaion ere, gerora gustua hartu zion. Izan ere, Nafarroako Txapelketan 30 aldiz baino gehiagotan parte hartu du: «bi aldiz jantzi dut txapela, bertze pare batez bigarren izan naiz». Hain zuzen txapelketa honetan kantari 25 urte egin zituen omenaldia egin zioten. Amaiak oraindik gogoan duen bertsoa kantatu zion orduan aitari, eta hura izan zen publikoaren aituzinean kantatu zuen lehenbiziko aldia.

Amaia, Iker eta Egoitz ere txapelketetan aski goiz hasi ziren, lehenbizi eskolartekoetan eta 18 urte betetakoan, Nafarroako Txapelketan. Amaia 6-7 urterekin hasi zen eskolartekoetan eta bi anaiak 13rekin. Baina Egoitzek onartu digunez, «txapelketetan aunitz urduritzen naiz eta serio kantatzen dut». Ikerrek ere aitortu du: «txapelketatik guttitan atera izan naiz pozik. Nerbioak ez dira beti onak izaten». Plazetan, aldiz, gozatu egiten omen dute:



Amaia Elizagoien, bere aita Bittor, eta azken honen ilobak Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaiak.

«plazetatik beti atera izan naiz pozik, eta bertso gehiago kantatzeko gogoz», dio Ikerrek. «Plazetan ni naizena izatea lortzen dut, nire umorea atera eta gustura kantatzea», Egoitzek.

**«PLAZA ALDATU DA»**

Plaza ugari egindakoa da Bittor eta horretan esker oneko hitzak ditu Manolo Arozenarendako: «lagun handia dut, anaia bezala, bertsoakide lagunik onena, eta 90. hamarkadan Nafarroako bertsolaritzan beraz enbergea. Bere bidez, saio aunitz egin nituen». Berak zorzea izan zuela dio, baina bere irudiko, «gaurko bertsolari gazteagoek zailagoa dute plazan kantatzea, saioak mugatuak dira». Amaiak ere «bertsolari gazteei kantatzeko aukeragehiago ematea» faltan somatzen du, baita bertso munduan gazte gehiago mugitzea ere. Bertso saioetan «gehienetan bertsolari berak joaten dira kantatzera, eliteko bertsolariak. Eta gazteriarren eta herriaren aldetik aurpegi berriak plazan ikusteko interes hori falta da, gaur egun, elitistak bihurtu direlako bertso saioak».

**«BERTSOLARITZA ALDATU DA»**

Ikerren arabera, «azken urteetan bertsoak aldatuta nabarmena izan du eta horri esker da-

go gaur egun dagoen bezain indartsu». Bittorrendako «bertsoa beti izan da neurtu, errimatu eta kantatzen den zerbait». Lehendik orainera zerbait aldatu bada bertsolarien maila omen da: «gaurai batean bertsolari gutiago ziren eta maila ematen zutenak oraindik gutiago. Gaur egun, bertsolari guztiek oinarri bat dute, bertso eskoletan ikasitakoa». Halere, bere ustez, «bertsoarako berezko dohaina behar da.

Bertso eskoletan edozeinek ikasiko du, baina berezkoa duenak gehiago nabarmenduko du». Amaiak, bere aldetik, «bertsolari egin eta sortzen dela» adierazi digu: «oholtzako bertsolaria izateko berezko behar da, baina bertsolaritzaz ez da oholtza gainekoa bakarrik, bertsoekin hainbat lanke-ta egiten ahal dira». Egoitzen irudiko, «edozein izan daiteke bertsolari bertso eskoletan landuz gero, baina bertsolari gehienok berezko dohaina dugu». Eta Ikerrek, berriz, «batzuk berez abildadea izan dezakete, baina bertso eskoletan edozein trebatu daiteke», kontatu digu.


**TXAPELKETAK BAI**

Txapelketak behar direla uste dute. Bittorren hitzetan, «txapelketak batzuetan bertsolari onak bazter ditzake. Baina orokorrean,

bertsoari indarra emateko beharrezkoak dira. Jende aunitz mugitzen dute eta bertsolariarendako txapelketarako entrenatzea aberasgarria da». Iritzi berekoak dira bi anaiak ere: «urtean saio gutti izaten dugunok txapelketei esker saio bat edo bi egiten ditugu. Txapelketarik ez balitz, tarteka bestan lagunekin bakarrik kantatuko genuke», dio Egoitzek. Amaiak ere «bertsolaritzak funtzionatu eta ikusarazteko bide positiboetako bat» direla aitortu digu. Halere, beretzat, «badaude gehiago ere, baina ez dugu jendarteari zein bertsolari gauden eta gure gaitasuna erakusteko bertze biderik lortu».

**MIRENESMENA**

Arrebaren zinta haietatik hasitako bidea fruituak ematen ari dela bistakoa da. Bittorrek alaba zaharrenari eta bi ilobei behintzat transmititu die bertsolaritzaz eta «poz handia» sentitzen omen du. Hiru gazteek ere pozik hartu dute bertsozaleasuna. Amaiak garbi dio: «beti izan naiz Bittorren alaba, baina harro nago horretaz. Berak sartu nau mundu honetan, eta beregatik ailegatu naiz iritsi naizen lekura, berak entrenatu nau. Abizenaren pisua sentitu dut, bai, baina pisu positiboa da». Egoitzek «nire erreferentia Bittor dela» erran digu «beregandik heldu zait bertsoetako afizio hau eta gu bere maila erdira ailegatzen bagara, kontent». Eta Ikerrek ere Bittorri «eskerrik beroenak» eman nahi izan dizkio «eman digun guztia gatik. Eta Bertsoan jarrai dezagula hainbat urtez!».



**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

**Eri zaude?**

**H**ankartean haragi puska bat zintzilik edukitzeak ez du halakorik ez dutenen gainean pribilejiorik aitorzen. Hankartean haragi puska bat zintzilik edukitzeak ez du halakorik ez dutenen gaineko gehiegikeriak egiteko eskubiderik aitorzen. Finean: gizonezkoak ez gara emakumezkoak baino gehiago eta hortaz, ez dugu eskubide gehiago, ez gaude emakumezkoen gainetik. Pertsona guztiek errespetu bera merezi dugu. Horrela pentsatzen ez duenak buruan arazo larria du eta hobe luke profesionalen eskuetan jarri. Horrela pentsatzen ez baduzu, zure ustez zu baino guttiago den emakume horren gan pentsa ezazu. Emakume hori zure ama, zure arreba, zure alaba dela pentsa ezazu orain. Oraindik uste duzu zu baino guttiago dela? Zu baino eskubide guttiago dituela? Zu baino guttiago merezi duela? Hala bada, eri zaude. Lehenbailehen zure buruko arazoa tratatzea aholkatzen dizut.

«Hankartean haragi puska bat zintzilik edukitzeak ez du pribilejiorik aitorzen»

**Ezpala**

Aitor AROTZENA

**Atseginetik hats egitera**

**K**anpineko prezioak begiratu, aztertu, erreserbatu eta ordaindu. Autoaren gurpilak aldatu eta olioa begiratu. Mugako kolan bi ordu eman, peajea ordaindu aitzinetik. Koltxo berriari ezin egokituz bizkarra okertu. Eguzki aurreko eta ondoko kremak seme-alabei igurtzi. Eguzkiaren erredurak arintzeko kremak eman nire sorbaldan. Irailean bueltatuko gara lanera, hats egitera.

**Nabarmentzekoak**Itsaso FAGOAGA  
Espainiako txapeldun

Lan aferak medio, estatuko Skeet Olinpikoko lau txapelketa handietatik bitan parte hartu du, baina biak irabazi ditu. Presidentearen Kopa eta, bederatzigarrenez, Espainiako txapelketa.

Juan Mari TELLETXEA  
Tren Txikito irrati diploma

Bidasoko Trenbidearen zaletua eta irrati-afizionatua da Iturenen bizidena elizondarra. Trenaren mendeurrena ospatzeko, irrati-afizionatuei zuzendutako diploma sortu dute zortzi zalek.

SORKUN  
Abeslaria Arantza Rock-en

Abuztuaren 20an eginen da Arantza Rock eta aurtengo kartelean, Errenteriko abeslaria ageri da erakargarri nagusi moduan, Katez, Enkore eta Skasti taldeekin batera.

Atzera begira → 2006-IX-7 / TTIPI-TTAPA 429 zk.

**Indusketa lanetan hasi ziren duela hamar urte Amaiurren**

Amaiurko gazteluaren aztarnen bila duela hamar urte hasi ziren Aranzadi Zientzia Elkartekoak indusketa lanetan. Lan horren burutzeko hamabortz bat lagun aritu ziren, Juantxo Agirre Mauleonen gidaritzapean. «Gazteluaren oroimena galdua zegoen sasi artean eta hori berreskuratu dugu», zioen. «Helburu nagusia hori zen, jakitea monumentuaren lur azpian zer dagoen». Bi astez lortutako emaitzarekin kontent gelditu ziren Aranzadikoak: «Hemen egindako lanak gure ezagupena handitu du, helburu zientifikoak bete dira, baina batez ere Amaiurko herriaren eta hemengo erakundeen harrera azpimarratuko nuke».

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Mainer Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerenziain, Martin Bertiz, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz eta Marga Erdozain.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2016ko harpidetza sariak**

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



## ABUZTUAK 14, igandea

**10:30** Moto Klasikoen kontzentrazioa. **20:00** Herriko txistulariak. **Ondotik** herriko trikitilariak. **21:30** Zopa Haundiak Herriko Ostatuan eta Errandonean. **00:00** Arbola altxatzea eta Joaldunak. **Ondotik** dantzaldia Trikidantz taldearekin.

## ABUZTUAK 15, astelehena

**08:00** Diana. **11:00** Meza nagusia. Meza ondotik txistulariak eta joaldunak. **12:30** Herriak eskainitako omenaldia 85 urtetik goitikoei. **13:00** Aizkora apustua: Erasun eta Palaxio Mindegia eta Saralegiren aurka. **18:00** Iruñako Dantza taldea. **Arratsaldea eta gauetz** dantzaldia Gabenara taldearekin.

## ABUZTUAK 16, asteartea

**08:00** Diana. **10:30** Herri kroserako izen-ematea. **11:00** Krosaren hasiera. **13:00** Pilota partida: Patxi eta Aitor Julen eta Xubanen aurka. **Ondotik** toka plazan. **16:00** Mus Txapelketa herriko ostatuan. **17:00** Patata tortilla lehiaketa. **Ondotik** berendua. **18:30** Patata Tortilla lehiaketako sari banaketa. **Ondotik** muxikoak. **Arratsaldez-Gauetz** dantzaldia Salaberri soinu-jolearekin.

## ABUZTUAK 17, asteazkena



**08:00** Diana. **10:00** Herriko trikitilariak. **10:00** Haurrentzako betiko jokoak. Eguerdian haurrentzako bazkaria. **16:30** Jokolandia. Arratsaldean zehar triki poteo. **17:30** Plater tiroketa. **18:30** Haurrendako berendua. **19:00** Herriko gazteek antolatutako jokoak. **Arratsaldez-Gauetz** dantzaldia Hauspolariek taldearen eskutik. **22:00** Gazteek antolatutako afari auto-gestionatua.

## ABUZTUAK 18, ortzeguna

**08:00** Diana. **11:00** Haurren pilota partidak. **12:00** Pala txapelketaren finala. **13:00** Piñata. **14:30** Bertso bazkaria Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin. **17:00** Haurrentzako futbito txapelketa. **21:00** Xingar jatea estalpean (Txartela 4 euro). **Arratsaldez-Gauetz** dantzaldia Joxe Angelekin. **02:30** Arbola botatzea.



**ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA**  
Fiesta zoriontsuak denoi!

PINTXOAK | BOKATAK | BAZKARIAK | AFARIAK

T. 948 920 948 · ZUBIETA

**MADERAS SANTESTEBAN** OHGI PASA BESTAK!

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)  
Bigak · Montaje obran  
Teilaturako egiturak  
Izei, haritz eta douglasezkoak edo laminatua  
Osagarriak · Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77  
info@maderasantesteban.com

**ARRATE ESTETIKA ZENTROA**

Zatoz!!!

Aurpegiko garbiketa Vit C : 50€  
Manikura permanentea: 30€  
Manikura normala: 15€  
Pedikura : 30€  
DHA autobronzeadorea: 30€ osoa  
Depilazio arrunta eta hariarekin eginikoa  
Produktuen salmenta

FESTA ZIORTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Parrokia, 18 | DONEZTEBE (Nafarroa) | 948 450 286

**Zubietako Udalak**  
besta zoriontsuak opa dizkizue  
zubietar eta bisitari guztiei

ongi pasa bestak!



**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | [www.arantza.net](http://www.arantza.net)

**PABLOENEA** ONGI PASA BESTAK!

KARTA | MENUA | PLATER KONBINATUAK  
BOKADILLOAK | HANBURGESAK | ETXeko POSTREAK



[www.pabloenea.com](http://www.pabloenea.com)  
Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077

*B*ostatua-jatetxea

**Burlada**



BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA  
[www.restauranteburlada.com](http://www.restauranteburlada.com)

**PRIMI**  
ostatua

ongi pasa bestak!



Goiko karrika, 7 • ARANTZA  
Tel. 948 634 052

Gasa Ura Kalefakzioa

ongi pasa bestak!!

**froling**

Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara



PATXI MUTUBERRIA ITURRIA  
686 23 52 30  
patximutu@hotmail.com

ERAKUSKETA:  
Bidasoa, 45 - BERA

**Bidasoa**

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

**24** ORDUZ

**GASOLINDEGIA**



Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

**ilargi** okindegia

**APEZENA**



ongi pasa bestak!



Enkarguak 948 634 156 • ARANTZA

## ABUZTUAK 13, larunbata

**12:00** Altxaferoa Herriko Etxetik. **Ondotik** kalejira txaranga eta herriko musika-riekin. **12:30** Herriko dantzari gaztetxoeren saioa. **14:30** Herri bazkaria: Zikiro-jatetxea. **18:00** Kalejira txaranga, buruhaundi eta erraldoiekin. **00:00-04:00** Dantzaldia Obaneuke taldearekin.



## ABUZTUAK 14, igandea

**10:00** Diana herriko musikariekin. **11:00** Haur eta Gaztetxoeren III. Herri Lasterketa. (Izen-ematea: 10:30-11:00). **16:00** Plater tiroketa Usua Ehiztari Elkartearen eskutik. **16:00-19:00** Puzgarriak frontoian. **18:00** Bertso saioa. Herriko bertsolari gaztetxoak lehenbizi eta ondotik Sebastian Lizaso, Amaia Agirre, Sustrai Colina eta Alaia Martin. Gai-jartzailea: Patxi Larretxea. **20:00-22:00** Txamukos mariatxi taldearen emanaldia. **00:00-04:00** dantzaldia Bide Batez taldearekin.



## ABUZTUAK 15, astelehena

**10:00** Diana herriko musikariekin. **11:00** Meza Nagusia. **Ondotik** herriko dantzari-ekin Arantzako Dantza dantzatuko dute. **18:00** Haurrentzat margo tailerra eta entzierro ttikia. **18:30** Pilota partidak: 1. partida: Patri Espinar-Amaia Araiztegi / Maite Ruiz de Larramendi- Maider Mendizabal. 2. partida: Olazabal-Olaizola / Errandona-Martinez. **18:30** Wii-a gazteentzat. **20:00-21:30** Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **21:00** Suzko zezena. **22:00** Auzoetako afariak. **00:00-04:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.



## ABUZTUAK 16, asteartea

**10:00** Diana herriko musikariekin. **10:30** Herriko pilota txapelketaren finalak Ekaitza Elkartean antolatuta. **12:00** Kantu poteoa Aterpetik abiatuta eta ondotik luntxa. **18:00** Haurrentzako herri kirolak plazan. **18:00** Gaztetxoentzako ginkana. **18:00** Herri kirol saioa frontoian. Nafarroako Txokor Biltze Txapelketa Aizkora erakustaldia: Donato Larretxea eta Mieltxo Mindegia. Harri-jasotze erakustaldia: Estixu Almandoz. **20:00** Elkartasun kalejira. **Ilunabarrean** dantzaldia Iratzar taldearekin. **21:00** Elkartasun afaria Ekaitza Elkartean. **00:00-04:00** Dantzaldia Iratzar taldearekin.

## ABUZTUAK 20, larunbata

**Ilunabarrean** Eonian Elektro elektrotxaranga **22:00** Kontzertuak: Katez, Sorkun, Enkore eta Skasti.



## Arantzako Kultura eta Kirol Batzordea

# «Bestak parte-hartzaileak eta denon gustukoak izatea espero dugu»



Azken hilabeteotan bestak antolatzen buru-belarri aritu dira Kultura eta Kirol Batzordeko kideak. Urtean zehar ekitaldi gehiago ere egin dituzte, inauterietan I. Trikitixa Jaialdia adibidez, edo maiatzeko mendi lasterketaren antolaketan ere aritu ziren. Baina orain, bestek dute lehentasuna eta horretan ari dira. Argazkian ageri diren Aitziber Lizardi, Ander Almandoz, Julen Oskoz, Igor Ugalde eta Imanol Lukanbioz gain, Itxaro Etxague, Joseba Pikabea, Beñat Mitxelena eta Amaia Lukanbiok osatzen dute batzordea eta kontatu digutenez, aurtengo «asteburua hobeki probesteko» bestak abuztuaren 13an hasiko dira.

Egitarian berrikuntza batzuk sartu dituzte. Hala nola, «joan den urteko emaitza ona ikusita eta bestak gogoz hasteko, aurtengo herri bazkaria lehenbiziko egunean egingen dugu, baina aldi honetan, zikro jatea izanen da». Herritar batzuek proposatu omen dute, eta «probatzea erabaki dugu». Badira bertze nobedadeak ere: «lehenbiziko aldiz, emakumezkoen pilota partida ikusteko aukera izanen dugu». Gainerakoan, haur, gazte eta helduentzako ekitaldiak izanen direla adierazi digute eta «herritarrek eta bisitariak parte hartzea» espero dutela. Gonbitea ere luzatu dute: «elkar errespetatu, ongi pasa bestetan».

I.M.  
**RRIXKO**  
IGELTSEKITZA  
IGELTSEKITZA ETA ZURGIN LANAK  
661 735 052  
ARANTZA  
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

**GOIENBURU**  
iturgintza  
iturgintza, kalefakzioa eta gasa  
eguzki plakak eta biomasa  
egurrezko kalderak eta aeroterma  
goienburu@gmail.com  
Goienburu, 10 · 31790 ARANTZA · 600 902 723

*Patei Iturria*  
**TAXIA - 8 PLAZA**  
666 894 833  
647 404 839  
Eguzkialdea 29 · Arantza  
ONGI PASA BESTAK

**GORA AMABIRJINAK!**  
**borzud**  
INPRENTA - HOPISTEGIA  
948 631 521  
material guztietan inprimatzen dugu  
hamisetak / oparitzeako artikulua

Zurgin lanak orokorrean  
**Luis Ibarra**  
636 701 204  
690 388 263  
luisibarra86@hotmail.es  
Salbatore karrika, 28 · ARANTZA

- Armairua
- Leihoak
- Ateak
- Teilatu berriak
- Parke flotantea
- Tarima
- Teilatu zaharberritzeak
- ongi pasa bestak



ARANTZAKO UDALAK BESTA ONAK OPA DIZKIZUE ARANZAR ETA BISITARI GUZTIEI

**ELUTSA**  
O S T A T U A

TABAKOAK

**BESTA ONAK  
PASA ITZAZUE!**

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

## IRIBARREN

Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

Energia aurrezteko leihorik egokiena!  
Passivhaus-Etxeentzako leihoak



**BESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU !!**

Antsolokueta, 28  
31760 ETXALAR  
T./F. 948 635 071  
info@ventanasiribarren.com



**haritzpe**  
Etxalarko okindegia

ONGI PASA BESTAK!

Goikolanda, 8  
31760 ETXALAR  
T. 618 778 328



### ABUZTUAK 14, igandea

**17:00** II. Lasterketa Herrikoa. Haur eta helduentzat lasterketa ez lehiakorra. 12 urtetik beheitiko haurren izen-ematea. **17:30** Haurren lasterketa. Helduen izen ematea plazan. **18:00** Helduen lasterketa. **Ondotik** bertako produktuekin berendua. Oharra: gertatzen ahal den edozein ezbehar ez da antolatzaileen ardurapean geldituko. **19:45** Agerraldi isila "Euskal Presoak Euskal Herrirat". **20:00** Altxareroa, txistulariak, trikitilariak, Elutxa txaranga, buruhandiak eta kankailuak. Txanpaina, goxoki eta globoak banatuko dira. **21:30** Herri afaria frontoian, txaranga alaituta. **00:30-03:30** Dantzaldia Gabenara taldearekin.



### ABUZTUAK 15, astelehena

**10:30** Argi-soinuak musikari, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Meza nagusia. AndreMari eguna. **12:30** Herriko dantzarien emanaldia txistulari eta musikariekin. **Ondotik** Eskola Zaharreko estalpean hamaiketako dantzari eta musikarientzat. **18:00** Herri Kirolak. Nafarroako II. Mailako aizkora txapelketaren kanporaketa eta Nafarroako lokotx biltze txapelketaren kanporaketa. **19:30-21:00** Txamukos taldearekin mariatxiak. **00:00-03:30** Dantzaldia Joxpa erromeria taldearekin.

## HERRIKO OSTATYA JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoa,  
Bokatak, Pintxoak...

**Terraza eta giro ederra!**

ONGI PASA BESTAK!

Andutzeta, 15 | ETXALAR | T. 948 635 465



**PLAZAKO**  
denda

ongi pasa bestak!

ETXALAR  
948 635 026



### ABUZTUAK 16, asteartea

**10:30** Argi-soinuak herriko trikitilarien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00-13:00** Haurrendako joko parkea, txu-txu trena, puzgarri eta joko tradizionalekin Navar Producciones-en eskutik. **13:30** Asau ttiki. **15:00-18:00** Haurrendako Joku Parkea, txu-txu trena, puzgarri eta joko tradizionalekin Navar Producciones-en eskutik. **18:30** Dantza Rebeca Aranzadi Akademiaren eskutik. **20:00-22:00** Elektropatxaranga taldearekin kalejira. **00:00-03:30** Kalera taldea eta Dj Txingu-direkin gaupasa.



### ABUZTUAK 17, asteazkena

**10:30** Argi-soinuak herriko txistularien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Herriko umeen XXX. Pilota txapelketa. **12:00** Aitor Danboriena Memoriala esku pilota txapelketa. **13:00** Pilotako sari banaketa. **17:00** XXIV. Mus txapelketa. Apuntatzeko 16:30etik aitzinera. **18:00** Herriko Trikitilarien saioa. **Ondotik** trikitilarienzat berendua eskola zaharretan. **19:30** Museko sari banaketa. **19:00- 21:00** Saltoka, Euskal musika eta dantza tradizionala. **00:00-03:30** Dantzadi taldearen emaldia.

### ABUZTUAK 18, ortzeguna

**10:30** Argi-soinuak Elutxa txarangaren eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **12:00** Bertsolariak. Uxue Alberdi eta Sebastian Lizasoren eskutik. Gai jartzailea: Joseba Olagarai. **14:00** Jubilatuen bazkaria Larraburuan. **14:00** Asaua ermitako zelaian. Plaza ingurutik Elutxa txarangarekin batera denak elkarrekin abiatuko dira ermitako zelaia. **20:00-22:00 eta 00:00-03:00** dantzaldia Oharkabe taldearekin.



**ETXALARKO UDALAK**  
BESTA ONAK OPA DIZKIZUE  
ETXALARTAR ETA BISITARI GUZTIEI

## ARROSAMENA zurgindegia

Zurgin lanak

BESTA ONAK PASA ITZAZUE!

948 635 144 - 680 260 872 • ETXALAR

## BEGOÑA TAXIA

ETXALAR

24 orduko zerbitzua.  
Ekitaldi, alordu, sagardategi...  
Joan eta etorria kontratatuz prezio berezia

**ONGI PASA BESTAK**

T. 674 644 812 - 948 635 096



# HERRIKO OKINDEGIA



Ogi naturalak, ama oreaz eginak:  
Espelta | Garia | Zekalea

Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 661 76 70 27 • ETXALAR



## ONGI PASA BESTAK!

- 39 logela erabat osatuak (komuna eta TBrekin) | Padel pista
- Ostata: Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak | Jangela pribatua
- 300 lagunendako bankete-jangela
- 200 ibilgailuentzako parking pribatua
- AZKUA erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, ezkontzetako dantzaleku, konferentziak emateko... mota guztietako ekitaldiak



N-121-A • ETXALAR • T. 948 635 000 • F. 948 635 263  
www.etxalar.com | info@etxalar.com



Nagusia, 17 · T. 948 450 589  
31740 DONEZTEBE



*ongi pasa bestak!*

**DONAMARIAKO HERRIKO OSTATUA**

Uxarrea, 79 · DONAMARIA (Navarra)  
T. 948 450 127 M. 630 055 993

Plater konbinatuak  
Razioak  
Eguneroko menua  
Menu bereziak

*ONGI PASA BESTAK!*



**SASOI eraikuntzak s.l.**

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA  
T. 948 451 596 F. 948 456 168  
info@sasoi.es

**ONGI PASA BESTAK**



**txokoberri ERAIKUNTZAK**

Igeltseritza lanak orokorrean

**ONGI PASA BESTAK!**

DONAMARIA | 609 987 551 | 676 394 225

*Ongi pasa bestak!*

**TXARUTA, S.L.**

Iturgintza | kalefakzioa | Gasa

**BIOMASA INSTALAZIOAK**

KOMUNAK | SUKALDEAK  
BEROKUNTZAKO INSTALAZIOAK  
EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOAK  
AEROTERMIA  
PELLET | EGURRA | GASOLIOA | GASA

31750 - GAZTELU - DONAMARIA NAFARROA  
T. 948 451 728 M. 659 770 015 M. 659 234 825  
@ txarutasl@yahoo.es



Donamaria - Gazteluko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei




## ABUZTUAK 14, igandea

17:30 Herri kirolak. Haurrak lehenbiziko txandan eta ondotik gazteak. 20:00 Txupinazoa eta kalejira txistulariekin auzoetan. 21:30 Zopak herriko ostatuan. 00:00 Dj Endara.

## ABUZTUAK 15, astelehena

09:30 Dianak auzoetan, gaiteroekin. 10:30-12:30 tren ibiltaria auzoz auzo 11:00 Meza. 12:00 Haurren dantza saioa. 13:00 Hamaiketakoa herriko ostatuan. 16:30 Haur eta gaztetxoaren frontenis txapelketako finalak. 17:00-20:00 tren ibiltaria auzoz auzo. 19:00 Doneztebeko dantzarien saioa. Arratsalde eta gauzez Oihana eta Oihana Aurtizko trikitilarekin dantzaldia.



## ABUZTUAK 16, asteartea

13:00 Aizkora apustua: Donato Larretxea eta Ruben Saralegi 14:00 Paella bazkari autogestionatua. 18:00 Tira goiti bulka beheiti. 21:30 Gazte afaria Iratxo ostatuan. Arratsalde eta gauzez dantzaldia Oharkabe taldearekin.



## ABUZTUAK 17, asteazkena

11:00 Puzgarriak. 16:00 Puzgarriak. 19:00 Txokolatada. 19:00 Tortilla eta postre lehiaketari hasiera emanen zaio eta 20:30erako lanak aurkeztu beharko dira. 21:00 Afaria frontoian. Arratsalde eta gauzez dantzaldia Bixenterekin.

## ABUZTUAK 18, ortzeguna

14:00 Herri bazkaria, Oihana Iguaran eta Oihana Bartra bertsolariekin. Segidan Konbentura bisita Aurtizko trikitilarekin. Arratsaldez eta gauzez Trikidantz taldearekin dantzaldia.

## ABUZTUAK 13, larunbata

**12:00** Txupinazoa beste hasiera ofiziala emanez. **Ondotik** kalejira herrian barrena herriko gaztetxoek animaturik. **14:00** Herri bazkaria: zikiroa. **17:00** Dantzaldia Hauspolariek taldearekin. **20:00** Herri kirolak. **21:30** Dantzaldia Hauspolariek taldearekin. **23:30** Rock kontzertuak.

## ABUZTUAK 14, igandea

**10:00** Herri krosa. **14:00** Haurrendako bazkaria. **16:30** Haur eta gaztetxoendako ginkana eta probak. **17:00** Mus zimizta txapelketa Ongi Etorri ostatuan. **21:00** Baztan zopak. **00:30** Dantzaldia Dj Palirekin. **06:00** Xinger jatea.



## ABUZTUAK 15, astelehena

**11:00** Meza Nagusia. **12:00** Herriko hurrek eskainitako dantza emanaldia. **Ondotik** luntxa. **17:30** Pala finalak. **19:00** Trikitixa erakustaldia herriko gazteen eskutik. **20:00** Antzerki-bertsolaritza. **22:00** Kuadrilen afaria. **23:00** Dantzaldia Franxixko akordeoilariarekin.

## ABUZTUAK 16, asteartea

**10:30** Txistulari eta gaiteroak herriari buelta emango diote. **12:00** Partxis txapelketa. **14:30** Gazte bazkaria Azkazkorrón. **Ondotik** kalejira Txarangak alaiturik. **17:00** Ipuin kontalaria. **20:30** Dantzaldia eta gazte mozorro besta. **21:30** Tortilla lehiaketa. **23:30** Dantzaldia eta karaokea DJ Moremiren eskutik.

## ABUZTUAK 17, asteazkena

**21:00** Auzo afariak.

**Miren Gortari Sein**  
**ILEAPAINDEGIA**

**ONGI PASA BESTAK!!**

Martin Urrutia · ORONOZ-MUGAIRI · T. 948 59 23 10

**PIERRESENEA** OSTATU JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
ITURRIOTZ AUZOA · ORONOZ MUGAIRI · 948 592 043

**ONGI ETORRI**

Bokatak · Pintxoak · Plater konbinatuak

**ongi pasa bestak!**

948 59 20 26  
ORONOZ-MUGAIRI

**OSKORRI**  
denda

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

Martin Urrutia · ORONOZ-MUGAIRI · 644 958 655

**ERREKA-ALDE**  
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean  
Teilatuak · Sukaldeak · Armairu enpotratuak

Tfnoa: 948 592 070 · ORONOZ-MUGAIRI

**MARITX**

PROIEKTU, BOLETIN ETA  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 BERA · T. (0034) 636 617 450

## ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



### Ezaugarriak:

- 101 m<sup>2</sup>ko etxabea lursailarekin
- 1<sup>o</sup> solairua, 69 m<sup>2</sup> eta 75 m<sup>2</sup>ko etxebizitzak
- 144 m<sup>2</sup>ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

**126.000€**

**SAROB**  
ERAIKUNTZAK

info@sarobe.eus  
www.sarobe.eus  
629 687 171  
mmstudio-k diseinatua  
www.mmstudio.info · 651 776 998

ONGI IGARO FESTAK!



**ZABALA eta GOIKOETXEA**  
ERAIKUNTZAK

Gure Ametsa GOIZUETA  
T/F: 948 51 42 28 M. 679 47 98 93 · 679 47 98 78

**Oxeguarda**  
ostatua



Ongi pasa festak!

T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

**MAI**  
OKINDEGIA - GOZOTEGIA



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

K. NAGUSIA · GOIZUETA · 948 514 242




Goizuetako Udalak  
festa onak  
opa dizkizue  
goizuetar eta  
bisitari guztiei



**Zubimuxu**  
ATERPEA

WWW.ZUBIMUXU.COM 663 85 85 02




## ABUZTUAK 7, igandea

**08:00** Aurorak Umore Ona koruaren eskutik. **09:00** Irumaita txaranga herrian zehar. **11:00** Meza. **12:30** Pilota partidak herriko pilota eskolako haurrekin. **14:00** Umeen bazkaria ikastolan. **16:30** Lasturren eskutik, zezenak eta poniak plazan. **17:30** Berendua Guraso Elkartearen eskutik. **18:00** Ion Areitio eta Gorka Suspe- regirekin Trialsin ikuskizuna plazan. **19:30** Mugi zaitetz disko festa plazan.

## ABUZTUAK 13, larunbata

**11:00** Gazte kuadrilen arteko paella prestaketa plazan. **14:30** Gazte bazkaria ikas- tolan. **17:00** Urumea jeitsiera. **19:30** Elektrotxaranga. **20:00** Gazte txupinazoa gaz- tetxean. **23:00** Kontzertua plazan: Estu eta larri, Lalera eta Laiotz.



## ABUZTUAK 14, igandea AMA BIRJIN BEZPERA

**10:00** Erraldoiak eta buruhandiak: Berriozar, Mutriku eta Goizuetako erraldoiak ibiliko dira herrian zehar. **12:00** Jaiiei hasiera emango dien txupinazoa. **Ondoren** Igandea txarangarekin txosna irekiera eta poteoa. **17:30** Pilota partidak Upel pilota elkartearen eskutik: O. Apezetxea-Eskudero / Olazabal-Olaizola III. - Aritz Lasapascual / Olaizola I-Otxandorena. **Ondoren** Igandea txaranga ikastolatik. **20:00** Gabezin taldearekin berbena plazan. **23:00** Gabezin taldearekin berbena plazan. **Ondoren** Igandea txaranga eta Dj.Txoko ikastolan.



**IZKIÑA**  
jatetxea

etorri Goizuetako  
fauna ezagutzera!!!

Pintxoak, bokatak  
bazkariak, afariak,  
eguneko menua



Tel. 948 514 102 · GOIZUETA

**ANSA**  
JANARI-DENDA

ONGI PASA FESTAK!

948 514 054  
GOIZUETA



**ZABALETA**  
taberna

ongi pasa bestak!



Nagusia, 42 GOIZUETA  
T. 948 514 063

## ABUZTUAK 15, astelehena AMA BIRJIN EGUNA

